

• PERTSONAIA •

Javier Etayo, *Tasio*

Nigatik balitz, egunkariak orri bakarra ukango luke. *Tasiori* emango nioke aurkia, Zakilixuti ifrentzua. Baina egunkariak bete egin behar direnez, eskuak geldirik gorde, eta mingaina askatzeko eskatu diogu *Tasiori*. Hitzek ere aurkia eta ifrentzua dutelakoan.

SUSTRAI COLINA

Irudiak: Tasio



Bizitzaren begirada komikoa

«Masa bati gauza konplikatuak esplikatzen saiatzea hanka sartzea da»

Haurrak artista kontsakratuak baino ausartagoak dira. Ez dira orrialde zuriaren beldur.

Umetan, beti nenbilen *monigoteak* egiten, irakasleen karikaturak, adiskideen portretak. Askok gustatzen zitzaidan *Mortadelo eta Filemonak* kopiazea. Horiei esker daukat estilo propioa, eta eskerrak, marrazketa izan ezik, ia dena suspenditzen zuenetakoa bainintzen. Betidanik joan izan zait begia karteletara, jendearen janzerara, logotipoetara, marketara... Ofizioa hartu aurretik ere begirada “profesionala” neukan.

Marrazkilaria izan baino lehen, maisua izan zinen, alta. Zer leku daukate irudimenak eta sormenak hezkuntzan?

Nire gusturako oso gutxi lantzen dira. Alderantziz. Orokorrean, eskola haurrari janzen zaion kortsea da, bere irudimena garatu ez dezan. Akats larria da hori, marrazkia arma pedagogiko izugarria baita. Umeari irudimena aktibatzen dio, eta bestela azaldu ezin dizkiozun gauza asko esplikatzen dizkiozu irudi bakarrarekin.

Arma pedagogikoa ez ezik, marrazketa eguneroko bizitzako arma ez ote den...

Che Guevarak zioen, fusil bat izan zitekeela beldurgarria ala ederra, erabiltzailearen arabera. Marrazkia gauza bera. Marrazkia, iritzia sortzeko, kritika zorrozteko, eta munduarekiko ikusmoldeak zabaltzeko tresna da. Agian, horregatik lantzen da oso gutxi eskolan. Sistema, orokorrean, neska-mutilen adierazpideak gutxiengoetara murrizten saiatzen da, borragoma bezain kamutsak izan daitezen.

“Sistema, orokorrean, neska-mutilen adierazpideak gutxiengoetara murrizten saiatzen da, borragoma bezain kamutsak izan daitezen”

1987an, maisutza utzi eta borragoma eta lapitza hartu zenituen marrazketara profesionalki dedikatzeko.

Erabat asebetetzen ninduen marrazketa zen, eta gainera, funtzionarioa nintzenez, eszedentzia eska nezakeen. Nire emazteari Kuban ikastaro bat egiteko beka bat eman zioten eta ez nuen askorik pentsatu: hemengoa utzi eta berarekin joatea erabaki nuen. Ez naiz hartutako erabakiaz damu. Badakit marrazkitik bizitzea ez dela batere erraza, baina hastapenetik izan dut onarpen handi samarra. Gaur egun, ez daukat inorekin lotzen nauden kontraturik baina lan finkoa badudala esan dezaket. Pribilegio handia da hori!

Profesionaltasunak aldatu zizun marrazteko modua?

Marrazteko modua ez, bizitza ikus-teko modua aldatu zidan. Kubara joan aitzineko eta joan ondoko bizitzak daude emaztea eta biontzat. Marrazteko estiloa urteekin lantzen eta fintzen joaten zaren zerbait da. *Eginen* egiten nituen tirak ikusten ditudanean ez dute zerikusirik orain marrazten ditudaneekin. Suposatzen dut, urte batzuen buruan, orain egiten ditudanak ikusi eta gaur baino gutxiago gustatuko zaizkidala. Bizilegea da.

Erabateko dedikazioak ez dakar presio erantsirik?

Ez, ezin hobeto bizi naiz. Ez dut inongo nagusirik, ez dit inork ordutegirik markatzen, nahi dudanean esnatzen naiz, nahi dudanean ekiten diot lanari, nahi dudanean uzten dut... Ederki. Diziplinari datza gakoa. Ezinbestekoa da. Horregatik saiatu naiz beti jaikitze ordu bat jartzen, eta goiz zein arratsalde, ordu dezente sartzen. Dena den, nik abantaila bat daukat. Ohean irratia entzuten ari naizenean, burua makinatzen ukan nezake. Azken finean, tiraren elaborazioa da errazena, ideia dirdiratsua atzematea da zaila.

1991tik hona, egunero errepikatzen diren egoera berdintsuei tira desberdinak egitea ere ez da erraza izango, ezta?

Tasio

“1991n, *Eginen* hasi nintzenean ez nekien J. Etayo edo bestela firmatu. Garaiak ere zirenak ziren, goitizenez firmatzea aholkatu zidaten. Orduan, Tasio ikazkinaren pelikula zegoen modan, eta pertsonaia nafar, *asilbestratua* zenez, beragatik bihurtu nintzen *Tasio*”.

Nik *pipa* pasatzen dut. Kritika politiko-soziala egin neza-ke, nahi dudanarekin sartu naiteke, eta gainera ordaindu egiten didate! Nola nekatuko naiz hortaz? Tiren sekulako terapia da niretzat, asko gozatzen dut, eta arrazoiren batengatik utziko banitu, izugarri botako nituzke faltan.

Zenbaitetan isilik egoteko aukera ez duzu faltan botatzen? Beti daukazazu gauzak garbi?


Bai zera! Ni oso ideia sinpleak aurkezten saiatzen naiz. Masa bati gauza konplikatuak esplikatzeko saiatzea hanka sartzea da. Adin guztientzako jendearentzat marrazten dut, eta denek konprenitzea nahi dut. Orduan zenbat eta tira sinpleagoa, hainbat hobe!

Nahi duzunarekin sartu zintezkeela zenioen. Ziur zaude?

Ez dakit zer pentsatu. Jende batek kontuz ibiltzeko esaten dit, baina nola?! Beldur hori hor dago eta nahi baino gehiagotan oroitarazten digute. Egungo presio mediatikoarekin, gaizki ulertutako edo modu makiabelikoan interpretatutako tira batek bizitza konplikatu diezadake. Adibi-

Nortasun agiria

Nafarroako Erriberako Sesma herrian jaio zen 1954ko maiatzaren 11n. Urte anitzean eskolako maisu aritu bazen ere, 1987an dena utzi eta geroztik marraztetik bizi da. 1991tik gaur arte, egunero tira bat atera du *Egin* eta *Gara* egunkarietan, eta beste aldizkari askotan kolaboratu du. Han eta hemen sari asko irabazi ditu, eta La Habanako umore politikoko lehiaketa entzutetsuan bigarren saria atera zuen.



dez, monarkiarekin izugarri auto-zentsuratzen naiz. Esaten hasita sekulakoak eta bi esango nituzke, baina gauzak dauden bezala...

Mahomaren karikaturak, *El Jueves*en afera, laster eguraldiari buruz soilik marraztu ahal izango da!

Bai, eta segur aski eguraldia Mariano Medinak esplikatu-ko du, bueltan datozen behin-olako sasoiaren gorazarrez. Esaterako, Mahomaren karikaturek, *Che* Guevararen fusilen teoria berretsi baino ez dute egiten. Garai okerragoak iritsiko direnontz? Nik uste dut iritsi litezkeela.

Asisko Urmenetak esana: "Apologiaren legeak distorsionatzen du dena".

Hori da herri honetan egon behar lukeen eta ez dagoen funtsezko eztabaidetako bat. Telebistako tertulietan ezin badu inork borroka armatua defendatu nola egongo da debatea? Marrazkiekin gauza bera. Gainera, onartzen dut nire bando politikoari ziria sartzeak izorratzen nauela, bestela ere nahikoa egur jasotzen duelako, baina kosta arren, nire lana da, eta segituko dut zirikatu eta eragiten.

Zer eragin nahi duzu zure irakurleengan?

Irribarrea eta pentsamendu kritikoa. Horiek dira tira baten arrakastaren bi gakoak.

Zer umore mota bilatzen duzu?

Hitzik gabeko umorea gustatzen zait. *Egin*en euskaraz marraztu behar nuen, eta ez nuenez hizkuntza kontrolatzen, txiste guztiak mutuak izan zitezen ahalegintzen nintzen, itzulpen filtroetatik ez pasatzeagatik. Gustatzen zait txiste mutua. Dena begi-kolpe batean eman eta jasotzen da, segundo bakarrean gauza asko esan ditzake, eta testuak sor ditzakeen nahasketak saihesten ditu.



AZKEN HITZA

Komikigintza

“Gurean komigintza oso utzia dago, abandonatua ia. Sistemari ez zaio interesatzen jendeak pentsatzea, irri egitea, pozik egotea. Sistemak jendea depresioan sartu eta ahal dela bajarik ez eskatzea nahi du. Horretaz gain, ez du dirurik ematen, ezin da etekinik atera, orduan ahaztu eta bakea. Niri pena izugarria ematen dit. Instituzioak askoz gehiago inplikatu behar lirateke komikigintzan. Gastatzen duten dirua gurea da, ezta? Exijitu beharko genieke halako arloetan gastatzea. Ez dezatela esan arazoa kulturala denik. Benetako apustua eginez gero sortuko da kultura”.

Aurreikusten duzu noiz den tira bat ona eta noiz txarra?

Susmoa izan zenezake, baina batzuetan sorpresak hartzen dituzu. Batzuetan nik ere pentsatzen dut “hau zer txarra den!”, baina besterik ez zaizu ateratzen, ez daukazu denborarik edo... Bestetzueta, aldiz, tira arrunt bat egin duzula uste eta munduari itzulua ematen dio. Irailaren 11ren ondotik, Afganistanen gerra hastear zegoela, mapamundia zabaldu eta zonalde hartako herrialde guztiak “-istan” bukatzen zirela ohartu nintzen. Hori hala, edozeinek egin zezakeen txistea egin nuen, “aquí no estan/aquistan”. Asko uste gabe, tira horrek sekulako arrakasta ukan zuen. Pentsa, Interneteko eskubideak kobratu banitu etxea ordaindua izango nuen!

Anitz eragiten du testuinguru politiko-sozialak?

Izugarri. Kasu hartan, gerra atarian geunden, mundu guztia urduri zegoen, eta bat-batean, seriotasun hori guztia hankaz gora jarri zuen tira agertu zen. Testuinguru guztiak dira garrantzitsuak. Ez da gauza bera mitin bat garai bare batean, edo mitin bat errepresio aro batean. Tirekin gauza bera.

Testuinguruak testuinguru, jende gutxi eza-gutzen du zure aurpegia. Ez zara aurpegi publikoa.

Ez zait fama gustatzen. Ezkutuan pasatzea nahiago dut, ez dadila inor ohartu hor nago-

“Telebistako tertulietan ezin badu inork borroka armatua defendatu nola egongo da debatea?”

Egoera pertsonala

“Ez du uste bezainbat eragiten, baina eragiten du. Egun txarra duzula, ordenagailua gaizki dabilkizula... Askotan, detaile horiek marrazkietan islatuta geratzen dira. Horregatik diot badela arnasbide bat, barruko korapiloak askatzeko modua”.

enik. Euskal Herrian ez da erraza, baina tira. Gainera, Gabirel Ezkurdiarekin Tele5-n kolaboratzen nuen garaian guri egurra ematera dedikatzen zen webgune bat sortu zen, eta Alcalá de Henaresko paraxutista batailoi batek nire larrua nahi zuen. Orduan pentsatu nuen; “kanpoko jendeak zenbat eta gutxiago ezagutu hainbat hobel”.

Egunero azterketa bat pasatzen duenarentzat ere babes bat izan daiteke, ezta?


Egia da neurri batean babesten nauela, baina ez da hori nire intentzioa. Eguneroko azterketarena ezin duzu saihestu. Zuk nahi ala ez, egunero daukazu azterketa bat zain, eta eza-gutzen zaituenak beti esango dizu zer gustatu zaion eta zer ez.

Ez al da zailagoa azterketak gainditzea gaurkotasuna azkarrago aldatzen denetik?

Horrek asko izorratzen nau. Asko zailtzen du nire lana. Pasa izan zait tira bidali ondoren albiste garrantzitsu bat ateratzea. Ez dago bueltarik. Zenbait egunetan, orduak aitzina joan ahala, tirek elkar jaten dute, eta zuk bidaltzen duzunak egunerokotasuna galtzen du. Ofizioaren ajeak.

Egunerokotasunaz gaindi, batzuetan publizitatea eta umorezko tira ez al dira hizkuntza berean mintzo?

Klabe batzuk komunean dituzte, baina ni publizitatearekin oso erreta nago. Auzo-



lotsa sentitzen dut. Izugarria da zenbat astakeria esaten dizkiguten, zenbat gezur, zenbat engainu. Pentsa, propaganda batean, Jaurilaritza AHT-a ekologikoki onuragarria zela esatera iritsi da, egiten ari diren txikizioak eginda. Salbatu beharrekoak salbatuta, munduko ofizio lotsagarrienetakoa iruditzen zait publizistena. Lasai bazkaltzen ari zaren bitartean kea saltzeak ez dauka izenik!

Herri honen asmo handiak kea izango ez direnerako tirak prest daukazazu?

Batzuk *neberan* gordeta dauzkatz, baina herri honetan gauzak oso azkar aldatzen dira, eta ez baitezpada hobera. Martxa honetan, nor-

Sariak

"Estimulu garrantzitsuak dira. Denbora bat da lehiaketetara aurkeztu ez naizela, baina sari asko irabazteko zortea izan dut, eta sariak jaso izan ditudan egunak egun atsegin eta zoriontsutzat dauzkat. Zure lanaren onarpena dira, funtsean".

baitek deskubritu arte izoztuta geratuko direla uste dut, Siberiako Mamuta bezala. Dena den, ni beti nabil tirak pentsatzen, eta norbaitek "aski da" esan arte hala segituko dut. Hori gabe zerbait faltako litzaidake. Beharra da.

Hemendik 25 urtera, beraz, orri zuri bat eman-go dizut, eta esango didazu aitona xaharra artista kontsokratua baino ausartagoa den.

Marrazten segi ahal izatea espero dut, eta gustatuko litzaidake egiten dudana oso desberdina izatea, orain marrazten dudana ez marraztea. Ikusi dadila ez naizela egun naizen pertsona, aldatu naizela, eboluzionatu dudala. Geldituko gara? ■

kenzazpi

www.kenzazpi.com • www.pserrano.com

"Argiak" diskoaren aurkezpen kontzertua

kenzazpi taldearen eskutik.

Urriak 4 • larunbata
gaueko 21etan
Altzaga-Erandioko
Merkatu zaharrean.

8 euro

Disko berria!